

Nafarkaria

• osteguna • 1998ko abenduaren 31

Egunkaria

Gehigarri honetan



Lizarra • Gustavo de Maeztu margolaria idazle.

Maria Castillo Suarez • «Galera bat eteteko idatzitako poemak dira».

Orba bailarako ardo apartsua



Aitonak Frantzian txanpaina egiten ikasitako era berreskuratu du Mitxel Ibañez iruindarrak. Beste hiru bazkiderekin batera ohiko eran biura, chardonnay eta garnatxa mahatsez egindako edaria Orba bailarako Oloritz herrian duen upeltegian produzitzen du. Horrela, familiako aurreko belaunaldien ametsak izan du jarraitzailerik.

Lizarra • Gustavo de Maeztu margolaria idazle

1913an idatzi zuen 'El imperio del gato azul' liburua argitaratu berri da

Lizarrako Gustavo de Maeztu museoak margolariak 1913. urtean idatzi zuen *El imperio del gato azul* liburua argitaratu berri du. Aurrerantzean, haren margolari lana ez ezik, idazle lana ezagutzeko aukera ematen du argitalpenak.



Margotzeaz gain, liburu ugari idatzi zituen Gustavo de Maeztuk.

• JOXAN GOYA

MARGOLARI LANAGATIK DA ezaguna Gustavo de Maeztu. Haatik, bere bizitzako zenbait unetan idazteko zaletasuna agerian jarri zuen margolariak. Hogeita hiru urte zituela idatzi zuen *El imperio del gato azul*, oraintsu argitaratu berri den liburua. Nolanahi ere, lehentxeago *Andanzas y episodios del señor Doro* idatzi zuen. Tartean, prentsa artikulua ugari idatzi zituen. 1908. urtean *El coitao* aldizkaria sortu zuen, bertze literaturgileekin batera. Bertan, idazki ugari kaleratu zituen, Don Tejon Belez Duero ezizenarekin. 1904 eta 1908 bitartean Parisen bizi izan zen

Maeztu, eta hantxe margolari lana baztertu eta idazteari ekin zion batik bat. 1922. urtetik aitzina bertze bi eleberridatzi zituen: *Fantasías sobre los chinos* eta *La camorra dormida*. Halaber, antzerki lan bat ere izkiriatu zuen: *Calostro*. Bere bizitzako azken urteetan, aldiz, idazteari utzi zion. Izan ere, bere idazle lana ez zen inoiz onetsia izan. Gustavo de Maeztu berak ere ez zituen gustuko izan bere idaz-

kiak eta elaberriak. Bere nekrologikoan haxe idatzi omen zuen, bere idazle lanari aipamen eginez: «Ez hitz egin horretaz, ez dauka inolako interesik».

Gustavo de Maeztu 1887. urtean jaioa zen, Gasteizen, eta 1947an hil zen, Lizarran. Hautzarroan Bilbora joan zen, eta han ikasi zuen margotzen, Antonio Lekuona irakaslearekin. Urteetan hementik harat ibili bazen ere,

1936. urtean Lizarrara etorri zen eta bertan hil zen, 11 urte geroago. Bere bizitzako azken urteetan margotu baino ez zuen egin.

Gizarteari kritika

Arestian erran bezala, *El imperio del gato azul* 1913. urtean idatzi zuen Gustavo de Maeztuk, 23 urte zituela, hain zuzen ere. Bertan, Rufo Pasamonte pertsonaiak Heredia izeneko herrian bizi izandako

gorabeherak kontatzen dira. Protagonista gizakiaren askatasunaren aldekoa zen, abenturazalea eta nortasun handikoa. Adituen hitzetan, Maeztuk pertsonaia horren bidez bere bizitzaren ahal baten ideiak hedatu nahi izan zituen. Eleberrian agertzen diren bertzelako pertsonaiak ere xelebreak dira oso. Nolanahi ere, Camino Paredes museoeko zuzendariaren hitzetan, ezaugarri horrek dibertigarria egiten du oso liburua.

Halaber, *El imperio del gato azul* eleberrian Bilboko nazionalismoaren aurkako aipamenak egiten dira. Miguel Sanchez Ostiz idazlearen ustetan, kritika soziala oso nabarmena da liburua osoan. «Gustavo de Maeztuk garai hartako boteretsuei erasotzen die, hots, armadari, polizia, apaizei eta epaileei».

Bere eleberria foiletinaren jeneroaren barruan kokatu izan da. Dena den, denak ez datoz bat iritzi horrekin. Izan ere, Gustavo de Maezturen anaiaren ustetan, «haren estiloa ez zen foiletinekoa, gaiztotasuna eta praktikotasuna falta baitzituen. Hura zintzoa zen, bihotz onekoa eta xaloa».

→ Kristina Berasain

bidean begi

MAITE URKIA



Urte berria atarian

Gabon zaharra azkeneko muino gainean dagoela basoko orbela bezala pausatu baino lehen, eta urte berria atarian bere jantziak estreinatze-ko irrikitan, samaldan etorri zaizkigu iragan urte osoko gorabeherak komunikabideen hitz-irudien bitartez, eta ez gara gu hasiko, beraz, baso sarri horretan arakatzen, ez orbela harrotzen, ez eta osinetan murgiltzen ere, baina jaramon egingo diogu asko zekien gizon batek behinola emandako kontseiluari: «bere ganbarako kontuak kitatu nahi dituenak, hobe du urtarileko arrats lasaietarako uztea zeregin hori, hobe turroi betekadak arintzen zaizkionerako uztea kitatze lana».

New Year's Resolutions izan zitekeen lerro hauen izenburua (ingeleseko klase batean aspaldi ikasitakoa), argazki zaharrak une batez gorde eta kamara eskuan irudietan zer bildu nahiko genukeen pentsatzeko gogoia izanez gero behintzat, nahiz eta zeregin zail xamarra dirudien bat batean asmoei hesia jartzen hastea, batez ere xirrixtuetatik sartu-irten ibiltzea dutelako gustuko.

Baina, beti ere, gizakiak badaki esker onekoa izaten eta ongi etorria egiten dio urte berriari modu batean edo bestean: goizean goiz mendi punta batera joanda, tabernetan disfrazatuta jantzita edo jantzi gabe, kotilloietan, etxean, ohean, era

askotan egiten ditugu urteen arteko zubiko ospakizunak, gutxi ez diren arren bakardadean eta egoera latzetan ospakizunik gabe igaro behar dutenak; baina, agian, itzalik ilunenak inguratzen duenean ere esperantza izpiren bat ekarriko dio leiho bazterren batetik sartuta gizakiari urte berriak, txinparta batek baino gutxiago irauten badu ere.

Urte berri berri, zer dakarrazu berri, uraren gaina, bakea ta osasuna, etxeoandrea hemen bada, urtets urtets urtets!, Amaiurko haurrek bederen oraindik ere kantatzen duten moduan, ganbaran begiratu eta egingo diogu geuk ere eske tipirren bat datorrenari. Urte berri on!

Basaburua • Gogoz ekingo dio irratiak urte berriari

Hilaren 20an izan zen Esan Erran irratiaren lehen emankizuna

Duela bi urtetik hona, irrati euskaldun eta euskaltzale bat martxan jarri nahian ibili da Ametsa Kultur Taldea. Ametsa bete egin da, eta, ondorioz, Esan Erran irratiaren emanaldiak hasi dira.



Fermin Gartxitorena eta Txari Eleta dira Esan Erran irratiako esatariak.
● OSKAR MONTERO

EZ DIRA IÑAKI GABILONDO ETA Julia Otero, Fermin Gartxitorena eta Txari Eleta baizik. Aurrekoek dituzten audientzia handiak ez dituzte izango, baina ahalik eta audientzia handiena lortzea amesten badute ere, kopurua ez da haien nahirik garrantzitsuena. Entzule euskalduna bereganatu nahi dute. Txari Eleta olaguetarrak dioenez, «gure erronka nagusietako bat hasieratik irratiaren fedehandirik ez zuten herritarrak gureganatzea da». Baina, halere, irrati euskalduna dela kontuan izanik, «euskara bultzatu nahi dugu, eta jendearen inplikazioa, lotura lortu». Egun, bi orduko irratsaioa eskaintzen du Esan Erran irratiak, hamaiketarik ordu bate-

ra, baina aurrerantzean programazio hori ugaritu asmo dute. «Besteak beste, zenbait taldek edo partikularrek irratsaioak egitea nahi genuke, programazioa aberasteaz gain, jende esparru zabalagoa hartuko genukeelako», dio Txari Eletak. AEK-k, esaterako, prest omen du aurki emango duen irratsaioa.

Euskalduna eta herrikoa. Horiek dira sortu berri den irratiaren bi ezaugarri nagusiak. Fermin Gartxitorena baztandarrak dioenez, «gure ingurukoa, hurbilena dugun informazioa da gure progra-

mazioaren ardatz. Hemengo kirolak, hemengo albisteak, hemengo jendeak...». Izaera hori lortzea nahikoa zaila suertatzen omen zaie bi kazeari hauei. Txariren hitzetan, «jendeak ez du irratiaren parte hartzeko ohiturarik, elkarrizketara gonbidatuz gero, ez dute oso gustuko izaten, eta gainera, euskaraz bada, are gutxiago». Izan ere, Esan Erran irrati sei bailaratan (Basaburua, Imotz, Ultzama, Odieta, Anue eta Atetz) eta Lantz herrian entzun daiteke, eta alde honetan euskararen egoera ez da oso ona. «Basa-

buruan eta Imotzen oso ongi gorde da euskara, baina Ultzama. Anue eta horietan, umeak eta zaharrak dira euskaraz dakiten bakarrak, nahiz eta euskaldun berri nahikotxo ere badagoen». Txarik gaineratu duenez, «bailara horietan galtzear dagoela esan daiteke, ez erratearren galduta dagoela».

Bazkide kopurua igo

Euskara berreskuratzeko lana, beraz, ez da makala izango, baina ilusioa behintzat ez zaie falta. Eta ilusioz, oztopak errazago gaudituz ohi dira. Diruz oso larri omen dabilta, ekipoan eta materialean asko gastatu baitute, eta Hizkuntz Politikatik, Cederna-Garalur Elkartetik eta bailaretako udaletatik heldutako diru laguntzak ez zaizkie aski. Horregatik, irrati bazkide diren 140tik gora lagunel, bost mila pezeta eskatzen dizkiete urtero. Orain bazkide kopurua ugaritu egin nahi dute. Hori izango da duela bi urte hasitako bide luzearen hurrengo urratsa. Garai hartan, Basaburua eta Ultzamako Euskara Batzordeetan, bietan batera sortu zen irrati martxan jartzeko ideia.

→ Urko Aristi

herri aldizkariak

Edume Elizondo

Sakanako kirolari hoberenak

Iragan urteko **Guaixeren** azken zenbakiak ohi baino tarte handiagoa eskaintzen zion kirolari. Kirolak sailetik at, orrialde zentraletan, Sakanako hilabetekariak eskualde horretako kirolari hoberenak bilzen ditu. Urtero herri bakoitzeko ordezkariak osaturiko batzordeak aukeratzen ditu kirolari hoberenak Sakanako Kirol Astearen egitarauaren barnean. Badirudi aukeraketa honen inguruan ika-mikarrik badagoela eta, horregatik, **Guaixek** zenbait iritzi bildu ditu. Honelaxe dio bada Irurtzongo kirol zinegotzi Fermin Escudero: «Sakana eskualde txikia da eta goi

mailako kirolariak aurkitzea zaila da. Bestetik, urtero kirolari berak agertzen dira hautagaien artean; beraz, ez litzateke hobe izan Kirol Astearen gainontzeko egitarauarekin jarraitu eta kirolari hoberenak bi edo hiru urtetik behin besterik ez egitea?». Beste batzuk uste dute aukeraketa batzordean entrenatzaileak eta kirolariak egon beharko zutelako objektiboagoak liratekeelako. Sariaren artean «euskara gehien bultzatu duen taldea» izenekoa egotea arras onuragarria iruditzen zaio Zabalarte kirol elkarterko lehendakari Iosu Imazi: «Horretan (euskararen alorrean) lan asko

dago egiteko oraindik. Agian, ikastetxeen arduradun eta udalen parte hartze gehiago behar da, euskararen garapenaren aldeko plangintza eta materiala guztia prestatzeko».

Honetaz landara, **Guaixek** erreportai zabala eskeini dio Arbizuko kiroldegari. Hiru urtetan 1.800 bazkide inguru erdietsi ditu eta gehiago bereganatzea espero du abenduan estreinatutako instalakuntza berriei esker. Frontoia, igerilekua, squash eta baloanitzetako gelari, muskulazio gela, sauna, hidromasajea eta turkiar bainuak gehitu zaizkie.



urdairen
mintzoa

Xabier Larraburu

Sanferminak

Eguberreitan gaudenez, sanferminetan bizi izan nuen pasadizo bat ekarri nahi dut gogora. Izorratzearen? Baliteke. Kontua da jaiak alde batera utzi eta, gauzez, *Perdidos en el espacio* filma ikustera joan nintzela. Hiru hitzetan definitzekotan, zientzia fikziozkoa, laser izpiak eta beste. Eta, egia esan, ez dut ulertzen zergatik kritikatzeko duten pelikula hori. Arina eta bizia iruditu zitzaidan eta gustura ikus daiteke aspertu gabe. Pelikula erdian hori pentsatu eta nire ondoan zegoenari, txano mexikanoz jantzitako gazteari, honelaxe esan nion: «Pelikula hau ez dago batere gaizki, e?». Eta berak, begirada luze baten ondoren, «zu ere tendidodesoletik al zatoz?» galdetu zidan. Mementuan pentsatu nuen intolerante baten aurrean nengoela. Nik, laser hotzen artean, baietz erantzun nion, eta ea nola jakin zuen galdetzerakoan, nirea zineman ikusten zuen lehenbiziko almohadila zela esan, eta porroa pasatu zidan. Porroa bai: aretoan bakarrik geundela gehitu behar al da? Zer uste duzue, sanferminetako gauetan zinema aretoak jendez gainezka daudela edo? Ez ba. Gu besterik ez geunden han! Intimidade hori aprobetxatzeko berak zeraman jostailuzko tronpetatxo gorria eskatu eta borroka galaktikoaren zaratei beste doinu bat erantsi nien. Ez zuen batere pegatzen! Oso gustura geundela esango nuke nik. Gero, protagonistak neska polita salbatzen duenean, nire ondokoak merendua aulkia gainean bota zuen eta lekuz aldatu behar izan genuen. Plano bat edo bi galdu genituen maniobra hartan, baina, oso pelikula ximplea denez, segituan berreskuratu nuen haria. Nire ondokoak, aldiz, altxatu eta proiektoreari begira «Bota pixka bat atzerago!» oihukatzen hasi zen. Hainbeste mugimendukin, klaro, txina galdu eta txiskeroarekin bilatze lanari ekin genion. Ustekabea, mokeak su hartu zuen, baina almohadilarekin itzaltzea lortu genuen. Erreduraren gainean txano mexikarra jarri genuen disimulatzeko, eta hantxe bukatu zen pelikula eta argiari eman zioten. Hartan bi madero sartu ziren aretoan eta nire adiskideak «gera gaitzen pixka bat ea zertara etortzen diren hauek ikustera» xuxurlatu zidan. Eta nik baietz. Segituan jakin genuen zertara etorriak ziren.

Orba bailarako ardo apartsua

Aitonak Frantzian txanpaina egiteko ikasitako era berreskuratu du Mitxel Ibañez iruindarrak

Beste hiru bazkiderekin batera, aitona Frantzian txanpaina egiteko ikasitako era berreskuratu du Mitxel Ibañezek. Ohiko eran biura, chardonnay eta garnatxa mahatsez egindako edaria Orba bailarako Oloritz herrian duen upeltegian produzitzen du. Horrela, familiako aurreko belaunaldien ametsak izan du jarraitzailerik.

On Perignon apaiz frantziarrak XVII. mendean asmatutako ardo apartsuaren tradizioa ikastera joan zen mendearren hasieran Jose Maria Ibañez ardo-saltzaile tafallarra Frantziako Champagne eskualdera. 1902an Nafarroako Diputazioak emandako beka batekin joan zen hara, eta bizpahiru urtez bertan egon zen, tentuz ikasten. Bueltatzean Euskal Herriko lehen txanpaina egiten hasi zen Tafallan. Ezkaba izena hartu zuen ardo apartsua egiten aritu zen hil arteraino. Champagnen ikasitakoa aplikatu zuen, baina bereiztasun batzuekin: besteak beste, mahatsa aldatu zuen. Han ardo apartsua produzitzeko pinot noire mahatsa erabiltzen zuten moduan, Nafarroan mahastietan ugariena zen garnatxa mahatsarekin hasi zen txanpaina egiten tafallarra. Aitonaren pausok Antonio jarraitu zituen Iruñean Baldizarbe markarekin, eta haren lekukoa Mitxel eta Jose Mari Ibañez anaiek hartu dute, Antonioaren semeek.

Aitonarengatik eta aita-rengatik ikasitakoa aplikatuz, 1994an hasi ziren ardo apartsua egiten, Mariasun Berrio eta Gerardo Goñi bazkide zituztela. Orba bailaran dagoen Oloritz herrian XVIII. mendeko etxe zaharkitu bat erosi, eta Basondoa izena darman txanpaina produzitzen dute. Joan den mendean Oloritz, Etxague, Orizin eta Untzue bailarako herriek osatu zuten Basondoa izeneko esparru



Mitxel Ibañezek maitasun osoz zaintzen du upalategiko lana.

administratiboaren izena hartuz. Horrela, upeltegi bat sortu dute, eta txanpaina egitea afizio sutsu moduan hartu dute.

Ohiko eran egina

Araudiak dioenez, Frantziako Champagne esparruan ohiko erara egiten den ardo aparduna da txanpaina. Espainian, berriz, Cava-ren Kontseilu Arautzailea dago. Hark bertan eta Katalunian egiten den beste ardo aparduna biltzen ditu. Ibañeztarrek eta euren bi bazkideak ez daude ez bata ez bestearen araupean. «Gurea da txanpainaren eta cava-ren moduko ardo aparduna, baina inongo kontseilupean ez dagoena. Baina, dena dela, ohiko eran Nafarroan egiten den ardo apardun bakarra da. Pentsatzen dugu gure ardoak antz handiagoa duela Frantziako txan-

painarekin Kataluniako cavarekin baino», dio pozik Mitxelek. Batez ere, Nafarroan mahatsak duen bereizitasunagatik omen da hori. «Hemen eta Katalunian, biura erabiltzen da. Mahatsa ezberdina da, Katalunia Mediterraneoan dago, eta gu alde Atlantikoan eta altuago. Hemengo biurak eta hangoak ez du zerikusirik», gaineratu du. Honi beste faktore bat gehitu behar zaio. Aurten mahatsarengatik kiloko 100 pezeta baino gehiago ordaindu dute Ibañeztarrek eta Katalunian biura mahatsa 35 pezeta eskaini diote. «Katalunian cava txar asko egiten ari dira. Batzuek hartu dute produkzioaren bidea kalitateari begiratu gabe. Guk, aldiz, kalitatearen alde egiten dugu», azpimarratu du. Oloritz herriaren erdian duten etxeko sotoan dute upategia. 220 metro koadroko toki txukundu zuten duela lau urte, Basondoa ardo apartsua egin ahal izateko. 1994, 95, 96, 97 eta 98ko uzta dute gordea. Urtero-

Mitxel Jose Mari Ibañezek tradentsi txanpantzan.

urtero batez beste 12.000 botilako produkzioa egin badute ere, aurtengoa txikiagoa izanen da, 8.000 botila bakarrik bete baitituzte. Sotoaren sarreran aitak duela 60 urte

Kataluniako Penedes eskualdean erositako kortxoak ipintzeko makina dute, eta prentsatzeko tresna. Barrura sartu ahala, muztioa gordetzeko altzairu herdoilezinezko zaz-

Zabalteko zain

Txanpain egilearen poztasuna lerroka kokatuak eta irakiten ari diren botilaren bat lehortzen denean hasten omen da ardo apartsua ongi ontzen ari delako seinalea baita. Dena dela, txanpaina egiteko prozesua hilabete batzuk lehenago hasten da.

Behin mahatsa erositako eta mahastegitik upel txikitik garratuta, motel-motel prentsaketa hasten da. Hortik lortzen den muztioa egonean utzi behar da garbitu dadin. Segidan, altzairu herdoilezinezko upeletan sartzen da zortzi egunez. Mitxelek dioenez, mahats kilo batek 0,7 litro muztio ematen omen die, baina bakarrik 0,5 erabiliko dute txanpaina egiteko. «Bestea bigarren txanpaina edo, iaz bezala, txakolina egiteko erabiliko dugu», dio Mitxel Ibañezek. Hurrengo pausoa ardo egonkortzea eta iragaztea izanen da. «Ardoa berez gutxika-gutxika garbituko da eta bizpahiru ontzi-aldaketa eginez edukiko dugu». Ondoren ardo txanpain bihurtuko duen pausoa emanen da, eta Mitxelek azukrea eta legamia botako dizki.

Behin botilan sarturik eta kortxoak jarritik, botilak ilaran pila-tzen dira. Hartitzen bi eta sei hilabeteko denbora tartean egoten da ardo apartsua. Tarte hori da Mitxel txanpain egilearen zako unerik politena, azukrea alkohol eta gas bihurtu delako, eta, noizean behin, ilaretan paratuak dauden botilaren bat lehortu egiten delako. Ondoren, ontze garaia hasiko da. Ibañeztarrenean bi hilabetetatik hamabostera arte luzatu daiteke. «Ardoaren arabera izanen da», dio. Denboraldi hori bukatuta hasten da hondarra kentzeko lan zaila eta neketsua. Horretarako ilaretan dauden botilak eguneroko mugitzen dituzten zoroen bat, eskerretara edo eskuinetara, eta gero makurtu egiten dituzte. Behin hondarra botilaren lepoen delarik, makina batzuetan sartzen dute ahoa hotzarekin kontaktuan jarrit. Mitxelek beharrezko likore dosia sartzen du eta hondarra atea ondotik botilei kortxo eta Basondoa etiketa jartzen die anaiairen laguntzarekin. Hortaz, nork zabaldu zain utziko di-



Kortxoak ipini ondoren bi eta sei hilabeteko epean hartitzen izango da ardo apartsua.

→ Irene Arrizurieta

Mitxel Ibañez:

«Saiatzen gara alderdi garaietako mahatsa erabiltzen. Hortik sortzen den muztioa freskoagoa baita, eta garrantzatsuna ere altuxeagoa du. Horrela, oso bizia da eta nahiko frututsua».

«Aurten nahiko urte garrantzitsua izan da erosi dugulako lehen aldikoz mahats ekologikoa, eta espero dut hurrengo urterako salgai jarriko dugula ardo apartsu eta ekologikoa».

pi upel handiak bistatu daitezke, botila ugari ilaran ontzen, eta beste asko kortxoak jartzeko eta etiketatzeko prest. Lanbide ez duten arren, txanpaina egiten jatoak dira. Aita-rekin Iruñeko San Kristobal mendian mahatsa biltzen ibiliak, txikitatik aitona lehenik Ezkaba markarekin, eta, aitak gero, Baldizarberekin, ardo apartsua maitatzen irakatsi zien. «Kristautzerakoan igurtzen zuen bere hatza txanpainean eta ezpainera ematen zigun, eta horrela hasten ginen txanpainaren gustuan. Harrezkerotzik, hasiak geunden», gogoratu du.

Berrituz doan afizioa

Ibañeztarrek eta beren bi bazkideek txanpaina egitea ofizio ez baina afizio sutsu dute. Mitxel aparejadore lanetan aritzen da goizez Nafarroako Gobernuaren Principe de Vianan erakundearen, baina txikitatik buruan txanpainaren negozioa buruan zuen, abian jarri zuen.

Gaztetako gogo horri jarraituz hasi ziren duela lau urte ardo aparduna egiten. Urteotan biura eta chardonnay mahatsarekin egindako txanpaina produzitu dute, eta beste zenbait ikerbide hasi dituzte. Aurten, aitona Frantziatik bueltan hasi zuen tradizioa jarraituz garnatxa mahatsarekin ondutako txanpaina egin dute. «Ardo txuria mahatsa mota hori erabiliz inork egiten ez badu ere, aspaldian Nafarroan gure aitona horrela egiten zuelako produzitu dugu», dio harro Mitxelek. Aitonak Estafeta kalean jarri zuen edari negozioa aurten itxi badute ere, nola edo hala haren lekukoa jaso duela uste du.

Txanpainaren produkzioak duen aisaldi guztia kentzen badie ere, pozik daude urte urte lortu duten produkzioarekin. Mitxel Ibañezek dioenez, Basondoa ardo apardunaren gakoa mahatsarekin dago, batik bat. «Saiatzen gara inguru garaietako mahatsa erabiltzen. Hortik sortzen den muztioa freskoagoa baita, eta garrantzatsuna ere altuxeagoa du. Horrela, oso bizia da eta nahiko frututsua», azaldu du. Orain arte mahatsa Añorben erosi dute, eta aurtengoa Irunberri.

Aurtengo produkzioa beste urteetako baino zertxobait txikiagoa izan bada ere, 8.000 botila aurreko urteetako 12.000 aldean, berrikuntza bat sartu dute. «Aurten nahiko urte garrantzitsua izan da erosi dugulako lehen aldikoz mahats ekologikoa, eta espero dut hurrengo urterako salgai jarriko dugula ardo apardun eta ekologikoa». Beraz, garnatxa mahats ekologikoaz egindako txanpaina merkaturatuko dute aurki.

Nolanahi ere, mahats ekologikoarekin egindako ardo apardunaz gain, badute beste asmorik buruan. Aitonaren proiektua erabat osatzea gustatuko litzaioke eta mahastiak eduki. Zonaldeko mahastiak ardo beltza egiteko dira egokiak. Dena den, dauden mahastiak begirutzen ari dira. Hala ere, momentuz produkzioan egin behar dute ahalegina. Txanpainaren afizioa errentagarria den arren, lan handia eskatzen du. «Inbertsio txikia egin genuen eta ordu gehiago sartu behar dira lanaren zati handi bat eskuz egin behar dugulako», gaineratu du.

Bien bitartean, urte sasoi honetan hain ohikoa den edaria asko merkaturatu dute, eta aurten salgai jarri dituzten chardonnayz egindako botila gehienak saldu dituzte, batez ere, Nafarroan, Gipuzkoan eta Bizkaian.

Klasiko bitxi • arront klasiko

Joxemiel Bidador

Dantzari emaniko tratamendu aldaketa XX. mende hasmentetan (I)

XVII. mendean Europa katoliko guztiko herriak aztoratu zituzten zorioneko misio herrikoien iraupena neurritz gain luzatu zen gurean. Saturnino Iburguren josulagun urretxuarraren adibidea aipa liteke, kasurako (1856-1927).



Patziku Perurenak Txistulari aldizkarian agerturiko lan arduratsu bezain artez ondu batean, ohi bezala bestalde, misionista honek Leitza aldean isuririko pozoiaren berri eman zigun, 1905-1907 bitartean ziztu soinua Leitza isilarazi zuen josulagunaz. Halarik ere, eta komunzki uste den baino usuagoak izan diren aipatu bezalakorik izan zirela jakinik ere, ahitzen zaigun mende honen hasieretan osagai berri bat gehitu zitzaion dantza arautzen zuen moralitate ertsi horri, euskal abertzaletasuna, hots. Aurreko mendeetan, beraz, hain likits eta labankorrek izateagatik oldartu ziren ingurutxo, bizkai dantza, eta eite horretako bestelako dantza nahastuak moralaren abararako sarrarazi zituzten, estrai-nekoz ordea, eta beste dantza mota batek pairatu behar izan zuen erlijioaren gutxi gehien-go zapuzkeria. Euskal Herriatik kanpo zetorkigun dantzak, alegia, eta aurretik ere gertatu zen modu berean, oraingoan ere, gure idazkigintzan bere islada izan zuen norabide doitzeko honek. oparoki gainera.

Blas Aierra: lehengo lepotik burua

Arakilgo Iriberriko erretorea zen Blas Aierra Indak Euskaldun guratsoen arguia edo cristau doctrina euscarazcoen esplicacionea euskal erriaren onaren deseyuz izenburuko lana agertu zuen Iruñeko San Saturnino karrrikako 14 zenbakian zegoen N. Aranbururenen 1914.ean. Itaun-erantzun tankerako eliz liburu ohikoa dugu, guratsoeri eskeina. Seigarren aginduaz ari dela, dantzaren aipua bazekarren, behialako liburuetan antzera: *Zoin dire comuzqui ocasiono edo becatu bideac gaztendaco? E. Dantza debecatuac, gaurco egunean usatzen diren bezala eta tratu debecatuac elcarren*

artean, dela itzez, dela escritubuz, dela bertze guisan. Cer da dantza? E. Elizaco Saindu batec dion bezala, da inguru bat ceñetan andreguta da lisstupa, guizonquia sua eta demonioa auscoa; eta orgatic ala nola ez baita posible suan sartu eta ez erretzea, urean sartu eta ez bustitzea, ala ez da posible dantza oyetara yoa eta ez becatuic eguitea edo bertzeri ez equin araztea.

Bizente Aizpuru moralista ez kristaua

1889. urtean Ordizian sortu Bizente Aizpuru Agirrezabalek ekarpen bikoitza egin zion euskal letretako bildumari. 1930.ean Donostian agertu Nekazaritza Euskalerriko nekazariantza ez da oraingoan guri interesatzen zaiguna, bai ordea ber urtean argitara eman zuen Gazteak garbik izan, garbitasun bidez zeoz nagusituko zerate pake ta zoriontasun bilatz. Beasaingo Leonardo Zunzunegiren moldiztegian inprimatu 1000 aleko edizio elebidun honek 200 orrialde inguru badu, erderaz lehenbizi, euskaraz gero. Liburuaren helburua zera dugu, euskal gaztediak ezkondu bitartean erabateko sexu garbitasuna nola gorde azaltzea. Liburuaren kapitulu guztiak hartara dira aiduru, bata kenda, determinismoari eta fatalismoari buruz diharduena. Aizpuru Euskal Herriko gazteak lizunkeritan itota ikusten zituen, dantza lotua likiskeri horren adierazpenik nabarmena zela. Haatik, apezken kon-tuetatik nahikoa al-dendurik zihon Aizpuren gogoa, bada, lehen eta behin bere burua agnostikotzat eskeini baitzigun, anti-dogmatikoa zitzaigun osoro. Beraz, ez da harritzekoa, horrelako lan estua zein ertsia

izan arren, liburuak kondena-tua izatea. Gasteizko gotzaia zen Mateo Mujikak lazki gale-razi zuen eta Aizpuren lana, determinismoa, eboluzionis-moa, aitorpena ukatzea edo Jesukristoren eite jainkotiarra bera ere zalantzan jartzeaga-tik: *Prohibimos gravemente y bajo pecado mortal a nuestros diocesanos leer, comprar, re-tener, vender, traducir o editar (...) mandamos a los que posean al-gún ejemplar del mismo que in-mediatamente lo destruyan.*

Gauzak horrela, liburuak erabat oharkabeen igaro zen, orduko komunikabideek, eta elizaren aginduari men eginez, isilarazia; alabaina irakurri zutenak izan baziren. Azken hauen artean Biktoriano Jua-risti sendagile famatua aipatu behar da. Aizpuren liburuak egileak berak igorria jaso zuena; liburuak esaten ziren guztiek ez zegoen guztiz ados, batik bat dantzaren inguruko kontuak zirela eta: *Discrepo de usted en la impor-tancia que da al baile agarrao en cuanto a la castidad. Una larga experiencia profesional en muchas partes del mundo civilizado, me ha convencido de que el baile no entra para nada en la libido, aunque sea el remedo inconsciente del acto carnal. En Galicia y en la Montaña navarra, donde bailan sueltos, son legión las chicas que paren en soltería, los incestos, y otras monstruosidades. En cambio en Castilla y Andalucía, en el campo, la gente es de una castidad que*


raya en fiera obsesión, y una chula no aguanta un desmán sin devolver un bofetón. Si usted supiera que la casi totalidad de las que paren en la maternidad de Guipuzcoa y

Navarra son chicas que no han bailado un chotis, ni un tango....



etorri ahalean

Patziku Perurena



Benjamin Tuterakoa

Gaur badirudigu, gizonak beditanik izandu duela mundumapa begibistan, baina, oso berandura arte ez zen osatu, edo esan liteke oraindik osatu gabea dela, edo sekulan ez dela osatuko. Bidari, erromes, merkataria eta abarren datuak hartuz osatuxe omen zuen lehen mundumapa Isidri Judutarrak.

Hala, Benjamin Tuterakoaren bidai liburuak ere, bere jeneroan hebreoz idatzia izan zen aurre-nekoak, geografiaren ikuspegitik testigutza judutarrik zahar-reenetakoa jasotzen du, aspalditik ezaguna den judutarren bidai, mentura eta merkatu zale-tasun fanatikoa nabarmenduz.

Merkatari judutarrek pertsie-raz, grekeraz, arabieraz, germa-niera ugaritan, espainieraz, eta eslaboz ere hitzegiten omen zu-ten garai hartan, ekialdetik mendebaldera, eta mendebalde-tik ekialdera, taigabe zebiltzala lehorretik edo itsasoz.

Frankoen herrialdeko mende-baldean itsasoratzen ziren, eta Farama aldera jo. Hara orduko, merkaduriak abere gainean pa-ratu eta Kulzum aldera. Gero ekialdean berriz itsasoratu eta Hichaz eta Chedda aldera, non-dik iristen ziren Sinder, Indiara eta Txinara. Handik itzuleran, almizklea, áloea, alkanfor, kane-la, eta ekialdeko beste zenbait je-nero hartuko zituzten honuntz ekartzeko.

Atzera Kulzum eta Farama barrena mendebaldeko isatsoa hartu eta, Kostantinoplan edo frankoen herrialdean utziko zu-ten gainean zekarten merkadu-ria. Beste batzutan mendebalde-tik Antioquia aldera jotzen zuten eta hiru egunen buruan Eufra-tesera heldu, eta azkenean Bag-daderaino. Han Tigris ibaia har-tu eta Ubulla aldera, gero Omán, Sind, Txina eta abarrera belaun-tzitan joateko.

Jakina da merkataria arabia-rraren eta erromesen bide beretsu-tik ibiltzen zirela, izanez ere, erromes aldiatarako antolatua eta fletaturiko bukeak eta kara-

banak aprobetxatuz egiten bai-tziztuzten beren bialeak. Eta he-mendik haruntz, eunukoak, es-klabuak, morroiak, ehunkiak, larrukiak eta armak eramaten zituzten, batik bat.

Bide beretsutik ibili zen Tute-rako Benjamin judua ere: etxe-tik Zaragozara; gero Tortosan, Bartzelonan, Geronan, Narbo-nan eta Béziarsen barrena Montpellier jo. Hango giroaz ha-la dio: «Hemengo merkatura, no-nahitik datoz: Algarbe, Lomba-dia, Erroma, Egipto, Palestina, Grezia, Francia, España, Ingla-terra, hizkera eta herrialde oro-tako jendajeak biltzen dira he-men beren negozioak egitera».

Bagdaden, beste gauza asko-ren artean, bidarientzako ostatu eta zortegi ugariak utzi zuten harriturik Benjamin; mende-baldean ez baitzen halakorik. Hala dio: «Halakotan hartzen dituzte udan eguzkiaren berotasun ika-ragarriaren eraginez burutik egindako guziak, eta bakoitza katetik lotuta eduki, udazkene-an beren onera etorri arte; bien bitartean erregeren etxeak man-tenetzen eta zaintzen ditu; dirua ematen diote gainera zoro hauei, etxerako laguntza moduan; hile-ro erregeren mandatari batek aztertzen ditu, baten bat zentza-tu den ikusteko, eta zentzuan sartu dena libre uzten dute, bere erromes bidean segi dezan eta etxera itzul dadin».

Kostantinoplan, berriz, au-rreneko aldiz ikusten duen zoo-logiko batekin egiten du topo, eta aipatzen du, greziarren arteko morrontzan gaitzetsirik eta laidoturik nola bizi diren juduta-rrak, baina, greziarrek ez dutela ausardiarik etsaien aurka ekite-ko, eta hartarako nonahiko mer-tzenarioak hartzen dituztela «barbaro» deituz, eta beren bu-ruak gerrarako grinarik gabeko «emetzat» dauzkatela greziarrek.

Herri zentzudun guzietan ha-laxe izan da beti: gudaria barba-ro, merkataria/politikoa erdipur-diko diru eta ohore gose, eta az-kenik izpiritu nobleko gizona, inolako grina zitalik gabeko ja-kintsu eszeptiko gozo.

Ziria

• Motxorrosolo •

Ohiko eremuetara

Aurrea hartu diegu. Milaurtekoa bi urte lehenago hasi da gurean, hori da marka hori. Esperientziak erakutsi-takoari ez zaio behar bezalaxe erreparatzen. Ohikoak ditu-gun euntze, soro, larre, eta abarrekoak auzalor bihurtu arte ez gara sobera antzinatuko. Elkarretaratzea bera, bigarren mailako helburua zen, bestelako eremuak ditugu biltoki.

Maria Castillo Suarez Olerkigilea

«Galera bat eteteko idatzitako poemak dira»

Iruñeko Udalak antolatu Egile Berrientzako Lehiaketako olerkigintzako lehen saria irabazi berri du Maria Castillo Suarez altsasuarrak *Amodio galduak* olerki sortarekin. Zentzu zabalean ulertutako maitasunaz mintzatu da gaztea. Ondoan izan zituen lagunen galerak eragindako bizipenatik sortutakoak, hain zuzen ere.

Nafarroako hiriburuko taberna batean egindako hizordura tenorez iritsi zen. Freskagarri baten arrimoan, labur eta gutxi hitz egin zuen Mariak. Dena dela, haren erantzunak zurrak izan ziren.

■ Zure lehen lana da *Amodio galduak*. Nola sortu zen?

Behin hitzaldi baten ondoren Bernardo Atxagarekin hizketan esan zidan zerbait idazteko *Garciana* aldizkarian. Hiru poema idatzi eta bidali nituen, baina ez ziztuzten argitaratu. Gero, horien jarraipena udan egin nuen. Udan propio lehiaketarako idatzitako poemak dira. Uda horretan inguruan neuzkan pertsona batzuk galdu egin nituen arrazoi desberdinetatik. Bat hil egin zen Hueska Aranean eta sentimendu horre eragindako poemak dira, galera bat eteteko idatzitakoak, nolabait.

■ Maitasuna dute ardatz zure lanek. Zein zentzutan?

Maitasunaz zentzu zabalean hitz egin dut. Hueskan galdu nuena laguna nuen.

■ Beraz, esperientzian oinarritutako zerbait da?

Bai, dena da esperientzia. Momentu horretan ezin nuen idatzi sentitzen ez nuen zerbait. Gero, pentsatzen dut ofizioak asko egiten duela, baina idatzi nituenean ezin nuen idatzi sentitzen ez nuen zerbait. Ez dut esaten posible ez denik, baina nik ezin nuen».

■ Jarraipenik izanen du?

Ez. Lan horrek ezin du jarraipe-

nik izan. Momentu honetan beste egoera batean nago. Testu bakoitzak bere garaia du eta bere inguruak.

■ Patziku Perurena epaimahai-kideak dio emakumearen begietatik egin duzula olerkia. Nabaria da zure begirada?

Esplizitoki nik ez dut ulertzen hori. Ez dakit zergatik esan duen. Emakumea naizen aldetik emakumearen ikuspegitik eginak daude, baina besterik ez.

■ Era berean, oso hizkera aberatsa erabili duzula dio.

Aberatsa izan daiteke, baina oso sinplea da. Ez da batere barrokoa.

■ Nola lantzen duzu hizkuntza?

'Guaixe' aldizkari-ko zuzentzaileetako bat naiz. Ohitura badaukat horrekin baino poemak oso sinpleak dira. Harritu ninduen horrek ere, Patzikuk esandakoak harritu ninduen asko.


■ Behin aurkeztu lehiaketa batera eta lehen saria lortu duzu. Idazten jarraitzeko asmorik baduzu?

Badaukat asmoa egunerokotasunari eta itxuratasunari buruz zerbait idaz-

tekoa.

■ Zergatik gai hori?

Ni horrelakoa naizelako. Badelako hartu dudana jarrera bat. Ez itxura zentzu txarrean. Pertsonak sentitzen duguna ez esateko ezaugarria daukagu. Momentu horretan erabili nuen poesia horretarako, eta, orain, nolabait ere, beste alderdia landu nahi



● MIKEL SAIZ

soslaia

du, pertsonak hartzen dugun jarrerari buruz. Denok hartzen dugu nola edo hala jarrera hori. Horregatik ez diot itxurakeria esaten, niretzat negatiboa ez baita, da gure autodefentsarako erabiltzen dugun zerbait.

■ Formato bera erabiliko duzu?

Poesia libre eta aurreko poesietan ireki dudana bidea. Ez propio hizkera poetikoa deitzen dena, oso borobila. Egunerotasunarekin lotutako gaia denez, egunero hizkuntza erabili nahi nuke.

■ Zergatik aukeratu duzu formato hori?

Kontakizun labur batean oreka mantentzea oso zaila da. Izan behar da egitura aldetik oso ona. Poesiak askatasun gehiago eskaintzen ditu. Bertso paperekin konparatuta poesia ere baliabide gehiago dauka. Oso zaila iruditzen zait kontakizun laburra egitea, izan behar delako testu txiki batean, oso orekatua, eta indarra mantendu behar du, oso txikia baita.

■ Bernardo Atxaga aipatu duzu. Baduzu begiratzeko ispilurik?

Poema hauek egiterako orduan euskal poeta gazteak asko irakurri nituen -Garikoitz Berasaluze, Urtzi Urrutikoetxea, Arkaitz Kano, Asier Serrano- eta Sarrionaindia ere. Sarrionaindia da gehien gustatzen zaidana. Bernardo

Maria Castillo Suarez Altsasun bizi da, 22 urte ditu eta iaz bukatu zituen Euskal Herriko Unibertsitateko Euskal Filologiako ikasketak, Gasteizen. Egun herriko Alegin Hizkuntza Akademiaren euskara irakasten du. Bierrik eta Sakanako Mankomunitateak emandako beka bat eskuratu du, eta ahozko tradizioa jasotzen dabil eskualdean barrena.

Soziolinguistika eta hizkuntza normalizazioa lantzen dihardu handik eta hemendik hartuz. Mariaren ustez, Katalunian gauza polit asko egiten ari da gai horren inguruan, Euskal Herrira ekar daitezkeenak. Era berean, UPNko Gobernuaren jarrera kritikatu du. «Egiten dena da idatzita dagoena aztertu. Euskara museoa balego bezala tratatu, eta hori UPNren filosofiarri jarraitzea da. Erabilera eta normalizazioa eragingo lukeen zerbait egin behar da», dio.

Narrazio Laburrean Iñaki Irisarrik irabazi du Egile Berrientzako Lehiaketako saria, bertso paperan Esteban Arozenak eta komikian Imanol Larunbek. Gaztea den arren, olerkigileak bere burua probatu nahi izan du, eta ataka ongi gainditu duela esan dezake.

Atxaga aipatu dut iraultzailea izan delako baina poesia arloan ez du gauza handirik egin.

■ Emakume gutxi idazten dute euskaraz, eta, poesia, are gutxiago. Zergatik?

Ez dakit. Poeta gazteen artean mutilak bakarrik dira. Korritzen duen topikoa da sentiberagoak garela, eta hari horri jarraikiz oso emankorrak izan beharko ginateke baina ez da hala.

■ Nondik hartzen duzu uzta?

Asko irakurri behar duzu eta hartzen duzu handik eta hemen-

dik. Idazten ari zaren momentuan edozein gauzak balio ditu: egunkariko eguraldiko pusketak... Poema bat horren inguruan idatzi nuen, beste bat Popeyeri buruzkoa da. Edozein gauzak balio ditu, errealitatearen urrupatzaile bat zara.

■ Sakanan badira idazle gazte franko. Zuk horien bidea jarraituko duzu?

Neska bakarra naiz eta batek daki nola bukatuko dugun.

→ Irene Arrizurieta



Nafar Kronika

Fermin Erbiti

Agur, badoa

Datorrena mendeko azkena edo azkenurrekoa den oraindik argitu ez badugu ere, kontua da ordu guti barru aio erranen diogula 1998ri. Urteari errepaso azkarra egiten hasi eta hamabi hilabeteotako albiste nagusia aukeratu behar izanez gero, gehienok ETaren suetenak ekarritako esperantza aipatuko genukeela uste dut.

Jakina, ni billabonatarra edo Gipuzkoako herri horretan loteria erosteko ohitura duen Leitzako harakin edo Beteluko tabernariaren bezero izan banintz, agian, lehengo eguneko dirutza pakearen esperantzatik gora jarriko nukeen urteko albisteen sailkapenean. Azken hilabeteotan Donostiara maiz joan naizen arren, tamalez, (Hau pena Jon) ez dut pote bakar bat bera ere hartu autobidea zeharkatzen duen herrietan, eta beraz, dudarik ez dut aurtengo albiste nagusia aukeratzeko.

Albiste txarrak ere jaso eta pairatu ditugu. Ikuspegi zabala eta aurrera begiratzeko ahalmena beharko luketen agintari batzuen zikoizkeria eta maila exkaxaren ondorio dira, nire ustez, horietako askoren arrazoia. Horretara ohitu garea ikustea ere ez da oso pozgarria, baina, gaur bezalako egun batean hori ahazten salatu gaitzen, eta, nire aldetik, egunkari berritu honetatik urte berri on guztioi.

gure aukerak

KONTZERTUAK

► **Tutera:** Kharkoveko Orkestrak kontzertua eskainiko du gaur, 18:00etan, Gaztambide antzokian. Bihar, aldiz, 20:30etan. Sarrerak 1.500 pezeta balio du.

ERAKUSKETAK

- **Lizarr:** Juan Maria E. Sukilbideren margolan erakusketa, ilbeltzaren 17a arte.
- **Zizur Nagusia:** Ascension Pomesen akuarelak ikusgai Kultur Etxean, urtarrilaren 6a arte.
- **Iruña:** 'Erase una vez' izenburupean, Asun Goikoe-txea, Kontxesi Vicente, Teresa Izu, Marian Esteban, Angela Moreno, Rosa Silva eta Belen Flamariqueren lanak ikusgai Gotorlekuan, urtarrilaren 24a arte.
- **Iruña:** Lekune galerian Fernando Pagolaren margolanak, marrazkiak eta monotipoak, ilbeltzaren 9a arte.
- **Iruña:** Castillo de Maya Kultur Zentroan Picassoren *Suite Vollard* erakusketa, urtarrilaren 10a arte.
- **Iruña:** Zabaldin Itziar Alforja, Patxi Araujo, Tomas Astiz, Xabier Celestino, Jose Miguel Corral, Marian Esteban, Belen Flamarique, Xabeir Idoate, Marisa Mantxola, Jose Luis Mayor, Angela Moreno, Iosu Moreno, Iñaki Otsoa, Basurde Resano, Joanquin Resano, Uxue Arroiabe, Teresa Sabate, Kontxesi Vicente, Rosa Silva, Patxi Zabalza, Koldo Sebastian eta Jabier Villarre-alen lanak urtarrilaren 10ra arte.

ZINEMA

► **Iruña:** Nafarroako Museoan *Mowgli eta Baloo* pelikula gaur, 11:30etan.

► **Zizur Nagusia:** Etzidamu *Un padre en apuros* pelikula eskainiko da Kultur Etxean 16:30etan eta 18:30etan.

► **Zangoza:** Gaur, 17:30etan, *El hombre de la mascara de hierro* pelikula eskainiko da Carmengo Auditorium-ean.

► **Izaba:** Igandean, *Willow* pelikula euskaraz Museoan 18:00etan.

ANTZERKIA

► **Iruña:** Etzi, etzidamu eta astelehenean Omar Etxegaraireren *En el reino de amarguria* lana Nafarroako Antzerki Eskolan, 18:30etan.

Arestiren liburutegia



—Non lle poñades chatas á obra namentras non se remata. O que pense que vai mal que traballe n'ela; hay sitio para todos.

Lana bukatu baino lehen, ez iezaiozue akatsik bila. Gaizki dabilela uste duenak, berak lan begi; guztientza dago lekua.